

22/12

irizpena

EAEko enpresa eta establezimendu
turistikoak arautzen dituzten xedapenak
aldatzeari buruzko
Dekretu Proiektuari Buruzkoa

Bilbon, 2012ko uztailaren 18an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Araozetarako Batzordea



*i*rizpena 22/12

I.- SARRERA

2012ko abuztuaren 1ean Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren idazkia jaso zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Horren bidez, EAEko enpresa eta establezimendu turistikoak arautzen dituzten xedapenak aldatzeari buruzko dekretu proiektuaren gaineko txostena eskatzen zen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Direktibak, barne merkatuaren zerbitzuei buruzkoak, zerbitzu-emaileen kokatzeko askatasuna eta zerbitzuen emate askea gauzatzea errazteko helburua duten xedapen batzuk bildu zituen.

22/12*i*

Irizpenpean jarri den dekretu proiektuaren xedea, aurreko baimenen orde, aitorpen arduratsua erabiltzetik ondorioztatzen den erregimena garatzea da. Honako hauek aldatuko ditu, zehatz-mehatz:

- 191/1997 Dekretua, uztailaren 29koa, apartamendu turistikoak, oporretarako eta turismorako etxebizitzak, etxe partikularretako geletan ostatua ematea eta landetxeak arautzen dituena.
- 128/1996 Dekretua, maiatzaren 28koa, landa-inguruneko turismo-ostatuak arautzeko dena.
- 102/2001 Dekretua, maiatzaren 29koa, hotel-establezimenduen antolaketa ezartzen duena.
- 199/2003 Dekretua, irailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-enpresa eta -establezimenduen erregistroa sortzen duena.

Idazki horren kopia bidali zitzaien berehala Batzordeko Osoko Bilkurako kide guztiei, beren proposamenak eta iritziak bidal zituzaten eta horiek bidezko Lan Batzordeari helaraz zekizkion, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamendu-araudian ezarritakoaren arabera.

Ekonomia Garapenerako Batzordea 2012ko irailaren 19an bildu zen, irizpenaren aurreproiekturako lehenengo proposamena eztabaidatzeko asmoz. Egun berean Batzordeak hurrengo irizpen proiektua onetsi zuen, eta 2012ko irailaren 21ean Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion, horrek onetsi zuela aho batez.

II.- EDUKIA

Lege aurreproiektuaren testuak azalpen zati laburra, 72 artikulua, bi xedapen gehigarri, 3 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken 2 xedapen ditu.

22/12j

XEDAPEN ATALA

I. kapituluak (1. eta 20. arteko artikulua) honakoa aldatu du: 191/1997 Dekretua, uztailaren 29koa, apartamendu turistikoak, oporretarako eta turismorako etxebizitzak, etxe partikularretako geletan ostatua ematea eta landetxeak arautzen dituenak.

Dekretu horren izena aldatu da, eta orain “apartamendu turistikoak arautzen dituen dekretua” da. Horrela, dekretuaren aplikazio-eremua apartamendu turistikoetara mugatzen da, eta bai III. Titulua bai oporretarako eta turismorako etxebizitzetara eta etxe partikularretako geletan ostatua emateari buruzko aipamen guztiak kendu dira. Horrez gain, honako aldaketak eta/edo ezabatzeak egin dira, besteak beste:

- Bi ostatu unitate edo gehiagoren eranskina herri berean egon beharra aipatu da beren-beregi.
- Ustiapen enpresei eta erreserbak deuseztatzeari buruzko zenbait alderdi aldatu dira.
- Aurreko baimenaren ordean, aitorpen arduratsua aurkeztu beharra ezarri da. Horren ondorioz, jarduera baimen hori aipatzen duten artikulua aldatu, eta ostatu turistikoko jardueran aritzeko aitorpen arduratsuan

agertu behar diren betekizunak ezarri dira, baita aurkeztu beharreko dokumentazioa osatu behar duten elementuak ere.

- Erantzukizun zibileko aseguruari dagokionez, testu berria esleitu zaio.
- Aldaketei eta itxierari dagokienez, testu berria esleitu zaie.
- Dekretuan ezarritako betekizun eta baldintzetako baten edo batzuen ohiz kanpoko lekaperari lotutako alderdiei testu berria esleitu zaie.

II. kapituluak (21. eta 43. arteko artikulua) honakoa aldatu du: 128/1996 Dekretua, maiatzaren 28koa, landa-inguruneko turismo-ostatuak arautzeko dena. Honako aldaketak eta/edo ezabatzeak egin dira, zehatz-mehatz:

22/12*i*

- Landa-kanpinei buruzko aipamen guztiak ezabatu dira.
- Modalitateak aldatu dira, eta turismo-ostatu zerbitzuak landa-turismoa, landetxea, landa-hotela, landa-apartamentua eta landaguneko aterpe turistikoa izan daitezkeela aipatu da.
- Landetxearen definizioa aldatu da.
- Pisuak landa-turismotzat edo landetxetzat joko ez direla ezarri da.
- Establezimenduaren titularrak bete beharreko betekizun subjektiboei testu berria esleitu zaie.
- Establezimenduetako edukierari buruzko artikuluari testu berria esleitu zaio.
- Dekretuan ezarritako betekizun eta baldintzetako baten edo batzuen ohiz kanpoko lekaperari lotutako alderdiei testu berria esleitu zaie.
- Baimenaren orde, aitoren arduratsua aurkeztu beharra ezarri da jarduera gauzatzeko. Horren ondorioz, jarduera baimen hori aipatzen duten artikulua aldatu dira.

- Erreserbak deuseztatzeari buruzko alderdiak aldatu dira.
- Funtsezko zaharberritzei buruzko alderdiei testu berria esleitu zaie.
- “Landetxeen plaka normalizatua” eranskina gehitu da.

III. kapituluak (44. eta 60. arteko artikulua) honakoa aldatu du: 102/2001 Dekretua, maiatzaren 29koa, hotel-establezimenduen antolaketa ezartzen duena. Honako aldaketak eta/edo ezabatzeak egin dira, zehatz-mehatz:

- Administrazio baimenaren beharra kendu da, eta, horren ordez, aitopen arduratsua aurkeztu beharra ezarri da jarduera gauzatzeko. Horren ondorioz, jarduera baimen hori aipatzen duten artikulua aldatu dira.
- Establezimenduaren turismo-araudia betetzen dela adieraztearekin zerikusia duten alderdiei testu berria esleitu zaie.
- Erantzukizun zibileko aseguruari dagokionez, testu berria esleitu zaio.
- Establezimenduaren funtsezko aldaketei eta itxierari buruzko alderdiei testu berria esleitu zaie.
- Dekretuan ezarritako betekizun eta baldintzetako baten edo batzuen ohiz kanpoko lekopenari lotutako alderdiei testu berria esleitu zaie.
- Erreserbak deuseztatzeari buruzko alderdiak aldatu dira.

IV. kapituluak (61. eta 72. arteko artikulua) honakoa aldatu du: 199/2003 Dekretua, irailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-enpresa eta -establezimenduen erregistroa sortzen duena. Honako aldaketak eta/edo ezabatzeak egin dira, zehatz-mehatz:

- Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-enpresa eta -establezimenduen erregistroa sortu eta arautzen duen 1. artikuluari testu berria esleitu zaio, eta, aldi berean, horren ezaugarriak aldatu dira.

- Inskripzioa “ofiziozkoa” izango dela aipatu da.
- Erregistroaren osaera eta edukia aldatu dira, baita haren egitura ere: lehen 8 atal zituen eta hemendik aurrera, aldiz, 4.
- Erreserbak deuseztatzeari buruzko alderdiak aldatu dira.

Testuaren amaieran honakoak daude: **bi xedapen gehigarri**, aitorten arduratsuaren erduei eta jatetxeen arloko enpresek izan beharko dituzten erantzukizun sozialeko aseguru-polizei buruzkoak; **hiru xedapen iragankor**, jada baimenduta dauden turismo-enpresa eta -establezimenduei, landetxeen araubide iragankorrari, eta oporretarako eta turismorako etxebizitzaren eta etxe partikularretako geletan ostatua ematearen zein turismo-trafikoan jarduten dutela jakinarazi dutenen araubide iragankorrari buruzkoak; **xedapen indargabetzaile bat**, dekretu honetan ezarritakoari kontra egiten dioten maila bereko edo behe mailako xedapenak indargabetzen dituen; eta **azken bi xedapen**, araudia garatzeko gaikuntzari eta dekretua indarrean sartzeari buruzkoak.

22/12*i*

III.- OHAR

III.1 OHAR OROKORRAK

Gure irizpenpean jarri den dekretu proiektuaren helburua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Direktiba, barne merkatuaren zerbitzuei buruzkoa, euskal antolamendu juridikora tokiz aldatzea da.

Direktibaren helburuak zerbitzu-emaileek estatu-kideetan kokatzeko duten askatasunari eta zerbitzuen estatu-kideen arteko zirkulazio askeari aurka egiten dieten oztupoak desagerraraztea eta zerbitzuen hartzaileei zein emaileei Europar Batasunaren Itunaren oinarritzko bi askatasun horiek eraginkortasunez gauzatzeko behar den segurtasun juridikoa bermatzea dira.

Haren helburuak zerbitzuak ematen dituzten enpresa-establezimenduen irekiera eta funtzionamendua erraztea eta estatu-kide batean ezarrita dauden enpresek Europar Batasuneko beste estatu batzuetan beren zerbitzuak emateko dituzten oztopoak murriztea dira. Horrela, Direktibak zerbitzuen hartzaileek duten hautatzeko aukera zabaldu, eta haien kalitatea hobetzen du, bai kontsumitzaileentzat bai enpresa erabiltzaileentzat.

Eragiketei dagokienez, Direktibak administrazio guztiek beren baimen-prozedurak berrikusi beharra eta zerbitzu-jarduerak askatasunez hartzea edo gauzatzea eragotzi edo zailtzen duten betekizunak kendu beharra zehaztu ditu. Horrez gain, zerbitzu horiek emateari murrizketak ezartzea ahalbidetzen duten kasuak ohiz kanpokoak direla arautu du.

22/12j

Praktikan aurretik aipatutakoak honakoa dakar: baimena zerbitzu-jarduera zehatz bat eskuratzeko kontrol-mekanismoa den aldetik, ohiz kanpokoak izan behar da, eta interes orokorreko ezinbesteko arrazoi batek, lortu nahi den helburuaren arabera denak, justifikatzen dituen bereizkeriarik gabeko irizpideei erantzun behar die, arau orokorra aitorten arduratsua aurkeztea izango dela.

Beraz, interes orokorreko ezinbesteko arrazoiek justifikatzen ez dituzten edo helburu horiek lortzeko beharrezkoak ez diren administrazio-baimenak kenduko dira. Horrek esan nahi du oro har, aurreko administrazio-baimenen prozeduren ordean, aitorten arduratsua edo jakinarazpenak erabiliko direla eta zerbitzu emateentzat beste administrazio-karga batzuk murriztuko direla: erregistroetako inskripzioak, baimenak berritzea, establezimendu berriak irekitzeko tramiteak bikoiztea.

Estatu mailan Zerbitzuei buruzko Direktiba bi legeren bidez gehitu da: 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzuetako jardueretara libreki sartzeari eta horietan aritzeari buruzkoa; eta 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zerbitzu jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko legerari egokitzeko zenbait lege aldatzen dituena.

Euskadin honako honen bidez egin zen: 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak

abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa dena.

Dekretu proiektu honen bidez turismo-zerbitzuak direktiba horretara egokitu dira, aurreko baimenak kenduz eta, horien ordeztan, aitorten arduratsuak ezarriz. Halaber, testu berria esleitu zaie araudiaren alderdi jakin batzuei, araudia eguneratzeko asmoz.

Dekretu proiektua hainbat kapitulurik osatzen dute, eta kapitulu bakoitzak establezimendu modalitate zehatz bat arautzen duen dekretua aldatu du:

- 191/1997 Dekretua, uztailaren 29koa, apartamendu turistikoak, oporretarako eta turismorako etxebizitzak, etxe partikularretako geletan ostatua ematea eta landetxeak arautzen dituena.
- 128/1996 Dekretua, maiatzaren 28koa, landa-inguruneen turismo-ostatuak arautzeko dena.
- 102/2001 Dekretua, maiatzaren 29koa, hotel-establezimenduen antolaketa ezartzen duena.
- 199/2003 Dekretua, irailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-enpresa eta -establezimenduen erregistroa sortzen duena.

Gure ustez, honako iritzi hauek eman behar dira horri buruz:

- Dekretuak arautzeko asmoa duela eta ostatu modalitateetan aldaketak egon direla kontuan hartuta, komenigarria izango litzateke gure irizpenpean jarri den dekretu proiektuak ostatu mota ezberdinen definizioa jasotzea kapitulu komun batean, mota bakoitzaren ezaugarriak ondoren garatu baino lehen.
- Gehitutako berritasunen barnean, gehienak komunak dira gainerako kapitulu-erretarako eta, beraz, ostatu modalitate-erretarako (adibidez, aurreko baimenak ordeztzea, aitorten arduratsua aurkeztu beharra, aurkeztu beharreko dokumentazioa, aseguruaren kontratatu beharra, dokumentazioa

aurkeztea, lekapena...). Hori dela eta, Batzorde honek uste du dekretuak testu bakar eta komun batean jaso beharko lituzkeela adierazitako alderdi horiek guztiak, hainbat alditan errepikatu beharrean.

III.2 OHAR ZEHATZAK

Zioen azalpena: azalpen zatia

Hori labur-laburra da, eta uste dugu dekretu proiektuak aldaketa justifikatzen duten lege arrazoiak, orokorrak zein partikularrak, azaldu behar dituela.

22/12*i*

Lege alderdiei dagokienez, irizpen honen “Iritzi orokorrak” epigrafean adierazi ditugun alderdiekin bat datorren azalpena proposatu nahi dugu.

Testuinguru horretan komenigarritzat jo dugu, aurreko baimenen ordeztan, aitorpen arduratsua erabiltzeko arrazoiak neurri handiagoan azaltzea. Izan ere, aldaketa hori 2006/123/EE Direktiban oinarritzen bada ere, funtsezkoa da horri buruz azalpen luzeagoa ematea eta ez aipamen hutsa egitea, errazagoa izateko.

Alderdi orokorrei dagokienez, horiek Batzorde honen irizpenpean jarri den kanpinen antolamenduari buruzko dekretu proiektuan adierazi dira, eta kasu zehatz honetan aplikatu ahalko lirateke, turismo-sektore orokorrari buruzkoak baitira. Honako paragrafo hauek dira, zehatz-mehatz: lehenengoa (“Garapena eta proiektzioa...); hirugarrena (“Izan ere, Legeak...”); zortzigarrena (“Funtsezko beste aldagai bat...”); bederatzigarrena (“Halaber, nabarmendu behar da...”); eta azkena (“Amaitzeko, doitu egin da...”). Jarraian, komenigarria izango litzateke nola lagunduko luketen lehenengo eta bederatzigarren paragrafo horiek sektorerako helburu orokorrak eta erronkak lortzen azaltzea.

Amaitzeko, dokumentuak bere artikuluen azalpena bildu beharko luke, erabilgarria eta oro har aplikatzekoa baita.

Horrez gain, nahiz eta hain garrantzitsua ez den, terminologia bateratu beharko litzateke: dekretu proiektuaren “Azalpen zatia”ren ordeztan, “Zioen azalpena”

adierazi beharko litzateke, horixe baita egun erabiltzen den terminoa.

191/1997 Dekretua, uztailaren 29koa, apartamendu turistikoak, oporretarako eta turismorako etxebizitzak, etxe partikularretako geletan ostatua ematea eta landetxeak arautzen dituen, aldatzea.

› Bosgarren artikulua

Artikulu horren 2. paragrafoan honakoa gehitzea gomendatu da:

Harrera gelan langile gaituek emango dute arreta, eta horiei dagokie erabiltzaile turistikoek posta jaso eta gordetzea hori hartzean, telefono-deiei erantzutea, ostatuetakoz giltzak zaintzea, eta erabiltzaile turistikoek funtzionamendu onari, zaintzari eta garbiketari buruz aurkeztutako erreklamazioak ebaztea edo bideratzea, bidezko neurriak hartuta, **baita erreserbei erantzutea, fakturak egitea eta haien zenbatekoa jasotzea ere.**

22/12*i*

Hotel-establezimenduetan harrera gelan erantzun ohi zaie erreserbei, eta faktura egin eta kobratu ohi da. Hori dela eta, harrera gelaren berezko eginkizunak direnez, beren-beregi arautu behar dira.

› Zortzigarren artikulua

Honako aldaketa hau egitea proposatu dugu:

4.- Aitorpen arduratsua ez aurkezteak, aitorpen arduratsu bati erantsitako edozein datu, adierazpen edo dokumenturen zehaztasunik ezak, faltsutasunak edo funtsezko ez-esateak, edo, agintari eskudunak egiaztatu ondoren, eskatutako betekizunak ez betetzeak turismo arloko organo eskudunak... abiaraztea ~~ekarri-ahalko du~~ **ekarriko du**

› Hamalagarren artikulua

“Administrazio isiltasun”ari buruzko aipamena gehitzea proposatu dugu hamaseigarren artikulua 6. puntuan ezarri bezala, hau da:

Horretarako ezarritako epearen barnean turismo arloko organo eskudunak beren-beregiko ebazpenik jakinarazi ezean, interesdunek ulertuko dute haien eskabideak onetsi egin direla administrazio isiltasunaren bidez.

128/1996 Dekretua, maiatzaren 28koa, landa-inguruneko turismo-ostatuak arautzeko dena, aldatzea.

› Hogeita bosgarren artikulua

Jarraian adierazitakoa gehitzea gomendatu da:

Nekazalturismoko establezimendutzat hartuko da etxebizitzarako eta nekazaritzako edo **abeltzaintzako** ustiapenak eskatzen dituen beharrei erantzuteko den eraikina edo eraikinen multzoa.

Izan ere, abeltzaintzako ustiategiak nekazalturismoaren barnean sartu ohi dira.

› Hogeita hamaikagarren artikulua

5. puntuan honakoa aldatzea gomendatu da:

5.- Datuen edo dokumentuen funtsezkoak ez diren zehaztasunik ezek, faltsutasunek edo ez-esateek zuzentze errekerimendua abiaraztea ekarriko dute, bidezko zehapenei kalterik egin gabe. Desadostasuna ez zuzentzeak ... abiaraztea ~~ekarri ahalko du~~ **ekarriko du**, hala denean.

› Hogeita hamabosgarren artikulua

“Administrazio isiltasun”ari buruzko aipamena gehitzea proposatu dugu hamaseigarren artikulua 6. puntuan ezarri bezala, hau da:

Horretarako ezarritako epearen barnean turismo arloko organo eskudunak beren-beregiko ebazpenik jakinarazi ezean, interesdunek ulertuko dute haien eskabideak onetsi egin direla administrazio

isiltasunaren bidez.

› Hogeita hamaseigarren artikulua

2. puntuan adierazi da, aitorten arduratsua egin ondoren, Lurralde Ordezkaritzak honako dokumentu hauek eskatu ahalko dituela, besteak beste: a) Memoria. Atal hori baino ez da aipatu. Hori dela eta, dokumenturen bat falta da, beste ostatu batzuetan egiten den bezala (b) atala), edo a) atala sobera dago.

› Berrogeigarren artikulua

Artikuluak adierazi du 128/1996 Dekretuan landa-kanpinei egindako aipamen guztiak kendu direla. Testuinguru horretan, geure buruari galdetu diogu non arautzen diren orain landa-kanpinak; alderdi hori testuan adierazi beharko litzateke.

22/12*i*

102/2001 Dekretua, maiatzaren 29koa, hotel-establezimenduen antolaketa ezartzen duena, aldatzea.

› Berrogeita zazpigarren artikulua

Aldatzeko eta gehitzeko honako hobekuntzak proposatu dira:

1.- Ostatua proiektaturik egonez gero, ... adieraz diezaien eska ~~diezaiokete~~ **eskatuko diote** enpresek Turismo arloan eskumena duen organoari, bidezko Lurralde Ordezkaritzaren bidez.

2.- Interesdunari jakinarazteko epea 3 hilabetekoa izango da...

Horretarako ezarritako epearen barnean turismo arloko organo eskudunak beren-beregiko ebazpenik jakinarazi ezean, interesdunek ulertuko dute haien eskabideak onetsi egin direla administrazio isiltasunaren bidez.

› Berrogeita bederatzigarren artikulua

Honakoa gehitzea proposatu da:

Hartzaileen eta hirugarren pertsonen **eta haien ondasunen** osasun eta segurtasun fisikorako arrisku zuzena eta zehatza egoteagatik, dekretu honetan arautzen diren establezimenduen titularrek erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu beharko dute, haien jardueraren balizko arriskuak bermatzen dituen. Aseguru horrek gutxieneko honako estaldura hauek izango ditu.

22/12*j*

199/2003 Dekretua, irailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-entresa eta -establezimenduen erregistroa sortzen duena, aldatzea.

› Hirurogeita laugarren artikulua

Turismo-entresen erregistroan aldaketa bat egin du, eta erregistroa organikoki Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Turismo Zuzendaritzari atxikita dagoela adierazi du. Sailaren izen hori egoeraren arabera izan daitekeenez, horren ordez honakoa erabiltzea proposatu da:

Erregistroa organikoki Turismo Zuzendaritzari edo turismo arloan eskumena duen sailari atxikita dago.

› Hirurogeita seigarren artikulua

6.1.a) artikuluari ordezko testua esleitzea gomendatu da:

Turismo-establezimenduaren identifikazio-datuak. Honako hauek adieraziko dira, gutxienez: sozietatearen izena, IFK, kokapena, telefono zenbakia, fax zenbakia, helbide elektronikoa eta webgunea.

Beste alderdi batzuk

› Erantzukizun zibileko aseguruari buruzko oharrak

Erantzukizun zibileko aseguruari buruzko hamargarren, hogeita hamazortzigarren eta berrogeita bederatzigarren artikuluei eta bigarren xedapen gehigarriari dagokienez, gutxieneko estaldurak arautzeko oinarri gisa hartu beharko litzateke Aseguruen eta Pentsio Fondoen Zuzendaritza Orokorrak (Zuzendaritza Orokorraren 2012ko urtarrilaren 24ko Ebazpena) kalte pertsonalarako ezartzen duen eta mota horretako establezimenduetako ezbeharretan emandako epai judizialetan ezarri den kalte-ordainen baremoak. Estaldura hori turismo-establezimenduko plazen kopuruaren arabera neurtu beharko litzateke.

22/12*i*

Horrez gain, ostatua eta hotela ez dira bereiziko kalte pertsonalen ondorioetarako.

› Aldi iragankorra

Dekretu proiektuaren artikuluek aldaketak sortu dituzte jada eratuta dauden enpresetarako eta turismo-establezimenduetarako betekizun zehatz batzuetan (edukierak, irudiak, funtzionamendua, erreserbak, aseguruak...), EHAAn argitaratu eta biharamunean aplikatuko direla. Alde horretatik, uste dugu aldi iragankorra arautu beharko litzatekeela, enpresak araudi berrira egoki daitezen.

IV.- ONDORIOA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzardeak egokitzat jo du EAEko enpresa eta establezimendu turistikoak arautzen dituzten xedapenak aldatzeari buruzko dekretu proiektua bideratzea, kontsulta-organo honek eman dituen iritziekin bat datorrena.

22/12*j*

Bilbon, 2012ko irailaren 21ean

OE Presidentea
Juan María Otaegui Murua

Idazkari nagusia
Francisco José Huidobro Burgos



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: EEGAB

Gran Vía 81, 7. solairua
48011 Bilbao. Bizkaia
www.cesvasco.es

Maketazioa: EEGAB

Inprenta: Gestingraf

Lege Gordailua: BI-1605-12